



## Efoma-Batlikano'lik.

Aita Santua'k larogeigafan urtean sartu danean lurberako alde gustietatik zorion-agufik maitakofenak artu ditu. Enda ta izkuntza gustietakoak, latefi txiki ta andiak, lurbira gustiak egia ta bakea zabaltzen daben Aitagaz gomutau dira. Agintarien artean Beljika'ko bakaldunak, Italia'koak, Rumania'koak, Hungaria'ko yaurlariak, Luxemburg'eko efegintzakoak, Austria'ko Lendakariak, Polonia, Lituania, Stonia, Letonia ta Irlanda'koak. Ameriketarik be Ipar-Amerika'ko Latefi-Batza'ko Lendakari Roosevelt eta Kolonbia ta Arjentina'ko Lendakariak, zorion agufak bialdu dautsez. Yaurlarien artean Schuschigg, Mussolini ta Titulesko izan dira lenengo agufak bialdu dituenak. Ofez gañera Aita Santua'k Ordalaritza daben 35 latefitako ordelarien izenean euren buru egiten dabenak zorion-agufik beroenak opatu eutsoezan.

## Komunistal erantzuten.

Irakurleak ba'daki, Aita Santua'k argi ta garbi egunokaz be esan dabela, argitokotar eta komunisten artean alkar aitzerik inondik ezin izan daitekeela, komunistak Yainko eta giza esku-bide gustiak zearo ondatu gura dituzelako. Alan da be, komunistak alegiñak egiten ditue euren irakatsi galgafiak katoliko gasteen artean zabaltzeko gauza batzuetan, gizarte auzian langileen zoritxafak osatzeko gertu dagozalako. Eta Aita Santua'ren itzaldian erantzuten asartu dira.

*L'Osservatore Romano*'k ederto erantzun dautso, giza-bizitzatza katoliko ta komunistak daukiezan eretxien artean bai eta ez arteko alde dagola. Komunistak gizarte auzia ebazteko be, katolikotasunari aurka egitea dauke ofa-fitza, Marx, Engels eta Lenin'ek beak be argiro autortu ebanez. Nok ez daki ba, katoliko gasteak egiten dautsen dei ofetan euren asmo galgafiak aufera eroateko asmoa daukela? Ori maltzurkeri utsez egiten dabe eta edonok daki maltzufe zer egin bear yaken.

## «L'Osservatore Romano»n berarizko zenbakia.

Egunokaz eskuratu dogu, Aita Santua'ren lafogeigafan urtea dala-ta argitaldu daben berarizko zenbaki edefa. Befoegi ingoski irudi edefez eta idazjan sakonez beteak dakaz. Izpafingiarren edestia, IX'n Pio, XIII'n Leon, X'n Pio, XV'n Benedito eta XI'n Pio agurgafiaren aldiatarafio. Aita Santua'k gizarte auzian, zifneste zabalkundean, izpafingi onen alde, yakidien auferapenez, eta abar egin dabena, kardenal eta yakintsu askoren idazlan edefetan azaltzen ditu. XI'n Pio'ren idantzezki edefa dakar Papini ospetsuaren opalbenaz. Zenbaki benetan irakurgafia. Zorionak!...

## Ipar - Amerika'ko Latefi - Batza'ko katolikoa.

1935'ko «*Oficial Catholic Directory*»k diñonez Latefi-Batza'n urte atan katolikoak 20.735.189 ziran. Aueko urtean baño 212.136 geyago. Zenbaki onetan sartzen dira Alaska'ko katolikoak (11.661) ta Hawaii ugartekoak (114.226).

1935'n katoliko biurtu diranak 63.454 izan dira, aueko urtean baño zerbait gixtiago. Gongotzain eta Gotzaiak 125, euron artean 4 kardenal, 21.378 yaupari eta 9.730 lekaide yaupariak. Eleiza ta mixinoetako kapiak 18.387, iges baño 43 geyago. Abade-ikastetzek 197 dira, 22.629 ikaslegaz. Erietxe katolikotafak 670.

## Kistar-Yakintza-aldez.

Kistar-Ekintzan lan egiteko, Kistar Yakintza bear-beafekoa dala egiztu-

beafik ez dago. Ipar-Amerika ko katolikoak au ondo ikusten dabe ta kistar-yakintza alde gogoz lanean diardue. 1905'n «*Te Catholic Encyclopedia*» 16 idaztitan argitaltzen asi ziran, eta 1916'n amaitu eben. Oin bafien-bafi gaurko beafizanak eskatzen daben yakintzaz bete-betea agertuko da 16 idazti aunditan «*Encyclopedia*» au. Gizadi yakintzako gai gustiak toki berezia izango dabe eta lan eder bakana izango da. Sei ilabete bakoitzean idazti bat argitalduko da.

—New York'eko 2 000 itzungile edo «bonberik» urtero lez, Patirki Deunaren Gotzain-Eleizan Mesa Deuna entzun eta Yaunartza egin dabe. Yaupa New York'eko Kardenal Hayes agurgafiak emon eutsen. Gero txaide-zear gustiak batera, Astor ostatura zuzendu ziran oturuntza egiteko. Gero, oi diran itzaldiak izan ziran. Itzungile gustiok Izen Deunaren Bazkunakoak dira.

## Manila'ko Fukaristi-Batza.

1937'ko Otsala-3'tik 7'ra ospatuko da, Manila'ko Eukaristi-Batza. 33'gn Batzar Orokoa izango da. Egitaraua argitaldu da. Aita Santua'ren Ordalaria ilaren 2'n elduko da. Gotzain-Eleiza ikertu ondoren, Erkal-Lendakaria ikertuko dau. Ilaren 4'n emakumeen eguna izango da, eta egun atan 6'1/2'tan Yaunartza orokofa izango dabe. Ilaren 5'n gaberdiko Mesan gizonen Yaunartza orokofa. Egun onetan Gotzain-Eleizan Ondu Deuna Gotzain eta Yauparientzat. Ilaren 6'n umeen eguna. Ilaren 7'n ibildeuna egin ondoren Aita Santua'k ifatizkiñez Onespena emongo dau.

## Polonia'fik.

Varsovia'ko Katoliko-Etxean, polonitar Gotzaiak Batzar ospetsu bat egin dabe. 35 Gotzain bildu eta euron artean izan zan Marmagni, Aita Santua'ren Ordeleri oraintsurarte izan dana. Hlond kardenalak itzaldi edefa egin ondoren, laster ospatuko daben Polonia'ko Eleiz - Batza gertatzeko gayak aztertu zituezan. Ikastolen ufitasuna eta Eleizako agintariak gaste-riaren asiera onerako aurkitzen dituezan eragozpenak aztertu zituezan, batez be kistar irakaskintzaren kaltekoa dalako zabalduz doan neska ta mutikoak batera ikastoletan ipinteko oitura. Itunbanean on'zat emon zanaren aurka, Irakaskintza arazoetako Erkal-tsein edo ministroak, ikerlariei, abadeak Kistar-Ikastia irakasten ikastoletan sartzeko eskubidea bere oldez ukatzen dautsielako, euren asafea agertu eben. Gotzain gustiak, ago batez, katoliko gastediak egiten daben lan edefa goraldtu eben.

Izan be, ainbat bidar toki onetan esan dogunez, polonitar gasteak ez dagoz lo. Ointxe be Czesochiwa'n egin eben batzar izugafia ezker, Vilna'n 143 bazkun gaste-ordelariak batzar edefa egin eben. Lozd'en be neskatiñak katolikotafak beste ainbeste egin dabe. Oneik lan edefa egin dabe, 1935'n goterki onetan euren bazkideak euneko ogeyan ugaritzea lortu dabe-ta. Sielde'n be 2.000 gazte Batzafean bildu dira.

## Verdier kardenalaren del bai.

Gizarte langileen zoritxafaz efukituta, Verdier kardenal agurgafiak, dei eder bat zuzendu dautse pantzeta gustie al daben gustiak alkartuta gizarteko zoritxafak osatzen alegintzeko eskatuaz. Ederto diño, XIII'n Leon ezker Aita Santua'k gai one tzaz emon dabezan irakatsiak bete ba'ziran, gaurko zoritxafok ez genduzala ezagutuko. Gaurko gizarte eralbanean ikusten diran akatzak oartuta, gustiok bulafa yo beafean aurkitzen gara. «Oben barik dagonak, lenengo afia yaurti dayela» diñosku.



# IZPARAK

## Bizkaya

### Ibaruri.

#### Artezkarri jaunari.

Oartxo bat bakafik. Oin dala ama-bost egun baño geyago idazki bat bialdu neutzuen, eta EKIN onetan ez dozue argitaldu. Ez al zenduen artu? Ala ez zan egokia argitalduta? Zuentzako egokia ez ba zan, epailari gogofak zariela uste dot.

Guk, izparkariok, afotasun spurtxo bat eukiten dogu gure idazlanak argitalduta ikusiaz; baña guk gogo ta biotz onagaz lantxo bat egin, eta gero argitaldu barik ikustea, tamalgafia izaten yaku. (1)

Argitalduko dozuela, uste dot beintzat, idazki au, ta auferago idaztiko dodazanak be bai. Bestela ni, agur egitera noa. Ta zuentzako okefago izango litzake, ba efiko izpafak ikusiaz, geyago saltzen da asterokoa. (2)

#### «Zitori»ri.

Agertu zara, neuri erantzuteko ba da-be, ta gogoz ganera erantzun be. Ori da irudimena, ta zelako bizkofa dan zure idazkorta!

Begi ona daukazu, «Zitori». Ba emakume bat izango nazala, diñozu. Eta ori egiztuteko, neure ixen-abizenak ez nebazala argitaldu, diñoztazu. Bialdu nebazan; baña ez dakit zergaitik neure lenengo lana ixenpetu barik etofi zan. Eta gañera, oindiño ez dot lotsarik ezagutu.

Niretzako naikoa da sokilek jotie ta ardi-zain ibiltie. Zeuk, bai, izpafing, asteroko ta abafetan zeregiña ta lana bai daukazula. Assafe zagoz, zure idazlan batzuk ez dabezalako argitaldu, ta geyago ez idazteko asmoak zure buruan dabiliz. Tamalgafia da benetan; ez dakit nik Artezkarri jaunari zer jazoten yakon. Baña, burutik kendu egizuz asmo ofeik eta adore ta kementsuago jafaitu idazten. (3)

Neu ezagutzeko, idazlanen bafuan neure argazki bat bialdu biar neukela, diñostazu. Jakin egizu ba, argazkirik ez daukatala; ba bein, Oiz'en, Sankristobaletan, argazki bat atarateko gogo aundia euki neban; jafi nintzan dotore-dotore alako «efetratista» baten auflan eta... «efetratizteko makiñea» ez neutsan spurto bai Neure durduek aundiegiak edo... eztakit ba. Ordutik geyago «efetratzen» ez naz ausartu; bildur naz beste bategaz orlako jazoerarik gertatzeko.

Baña, autorkuntza au egin ondoren, bide egikofak autu bear dira gizarte-okefak zuzentzeko. Onetan, ugazaba ta langile, uri eta basefitar, zilegiztilari edo moralista, eleiz-buru ta eleiztar lauk gustiok lan egin egin bear dogu, bakoitzak al daben gustia egiñaz, bake ta anaitasun aizea zabaltzen aleginduz. Geure eretxi ta ondasun onari begiratu barik bakoitzak zuzentzaren alde ekin bear dautso, erabagi bide zuzenena deritxoguna geure kontzientziak eskatzen daskun lez aldeztu eta betetan aleginduz.

Verdier kardenalaren dei au oso ondo artua izan da Paris eta inguruko langileen artean eta zafada andia eragin dautse. Izan be orixe da bidea Eleiza'tik urindu daskuezan langile ga-xoak bide onera erakarteko.

M'tar G.

Ortik eta emendik neuriaz urten dot; nor zarlan jakin dot, ez neban uste zu izango zifanik, gure efiko izparkari; ez euki bildufik, inori ez dotsat esango-ta.

Kontuz, «Zitori»; ba zeuk diñozun lez, onbile onbile atzenian bonbile. Ez uste izan ni zuri laguntzeko nabilela arazo ofetan; ori bakoitzak egin biar daben zeregiña da-ta. Bafiro, be, zugalitik bafi batzuk entzun dozaz. Ez da egokia emen ipintea. Egunen baten ikertuko zaitu eta orduan astiro esango doguz gauza asko. Kontuz, ba; ta zigur jokatu. Beste bateri jazo yakona ez dakizula zuri be jazo, ta gero

Ikasgiñaren lapikoa  
Aundia, baña afoa.

Ulertuko dozuz; ulertzale onari itz gitxi.

#### Euria ugari.

Aspaldiko egunetan denporak ez dire atsegingafiak. Euria ugari jausten, ta... basefitafak denpora onan zain. Erein diren artoak ganora barik, aro tzafaz erein direz. Entzun dodan lez, or goyen, Maumen, arto eretiek oindiño amaitu barik ei dagoz. Zelako artoak izango ete dire aurtel!

#### Ezkontza.

Korpuzti egunean, Maume'ko Eleizan Ezkontzako Sakramentu Santua artu eban Zubizafeta'tar Juan Mari, Oromiño'ko mutil gazteak eta «Manti» deritxon basefiteko Rementeria'tar Juanita, neskatiñ gazte ta lirafiak. Zoriontsuak izan zaiteze bizitza bafi ofetan.

#### Iepar baltea.

Joan dan ileko atzenengo egunean itz «Ormaetxe» deritxon basefiteko lau urteko mutikoa. Gurasoi tamal agufa.

#### Asterketak.

Il onen 2'an, gure auzune, Axurias eta Maume'ko ikastoletan azterketak edo «examiñak» egin ziran; eta, entzun dodan lez, ondo be ondo urten ei eben; a ei-zan erantzutia! On Pilar ta lagunak afituta ei egoazen. Gure auzo-ikastoletako umiek gure efiko ikastolakoak baño geyago jakingo dabela uste dot. Emekoak jolasten bai jakingo dabe. Zorionak Ordeñana'tar Pelise eta Aldama'tar Iñese, gure auzo-ikastoletako irakaslemiek.

#### Korpuzti Eguna.

Aundikiro ospatu zan jai ori. Goixeko Mezan notintza aundia jaunartzeraz eldu zan. Gero, amafetan, Meza nagusia, Umiek «Angelis» deritxon jaupa abestu eben, ederto abestu be. Meza ostian ibildeuna egin zan elizpean-ziar. Don Juan pozik egoan ospetsu andiagaz eta notintza andiagaz ospatu zalako.

#### Dabiltezanak.

Gazteiz'tik udako opofaldia igarotera etofi da Befoialbiz abade-gaia. Lengo baten Maume'tik etofita agurtu nebazan Aldama'tar Iñese eta Ufuzuno'tar Miren.

Andoni Deunaren egunian asko joan ziran Urkiola'ra.

Galarta'n egun batzuk igarota etofi da Sagasti'tar Pedro Jose, gure Elixako «sakristeue».

#### GOMEZTEGI'TAR IGONE

(1) Siñistuten dot; baña emen ikusi gura zeunkiedaz idazlan piloa aurlan ta nun sartu ez dakigula. Guztientzako lekurik ez ta... zuk gero luze samar be egiten dozuz-ta.  
(2) Ez itxi idaztiari, baña syatu laburtxua-ge egiten, eta ez asafetu noz edo noz argitaldu barik gelditzen bada.  
(3) Bardin «Zitori»ri be diñoztat.

## Mañari.

### Gorpuztiz.

Egun andi ofetan elizkixun edefak ospatu ziran. Ibildeuna, elizpean egin zan.

Esakun zafa: «Gorpuzti, egun andi, zeru-lufian jai-andi.»

### Andoni Deunez.

Deun matagafi onen egunian, «Kurutzte Santu» elaxatzuan, Deuna'ren aldar, seferdijetan eta aspietan mezak emon ziran; eta meza ofetan, lagun askok jaunartu eben. Andoni Deuna'ren irudija, zitori edefez txukunkiro apainduta, eder-eder aurkitzen zan. Ofetarako arduria, bate-batzuk poz-pozik artu be egingo eben... Bai oxe...!

Egun ofetan, Urkiola-ganera, eurija goyan-beyan zalako-edo, beste urtietan lako jentetzarik etzan juan. ¡Alako eguraldirik ixan bel Batzuetan bafiz, olantxe oba... Bertarauten diran esko ta asko, efermeri-zikiñan jolastuteko asmuz bakafik jauten dira-ta...

### Juan Etoñijak.

—Basurto'ra juan zan Agifezabal'dar Eukeni gixona.

Bilbo'tik etofi zan egun batzuk igaroten Ayartzagoena'tar Alexe neskatiñ zintzua. Orainguan, berau, neska doloria ta efimia agertu yaku. —Galdakano'tik etofi zan, Asua'tar Miren neskatiñ.

### Agurtu.

Igandez agurtu genduzan emen, Sardul'tar Bitoren eta Gergore neba-afebak, eta Beaskoetxea'tar Efe mon Muxika'ko abertzale zintzua. Aberkide begikuok, bafiketaldi bat emen geuzag eginda gero, Urkiola'ra Andoni Deunak ikertuten juan ziran.

### ¡Ori lotsagañija...!

Asp-Idijon, emeko mutil batzuk ikatza baño be abo beltzaguak dabiliz... Zarata txiki bat ixan orduko, emeko itz zikiña, ta emeko biraua...! Bape bildur barik «pisti plast» jaurtiten ditubez... ¡Ori bai tamalgafija...! Eta... tamalgafijagua ondiño, birauak eta itz zikiñak entzunda, esko ta esko ez ikaratzia...

### ¿Sorgiñen bat ala zer?

Atso batek diño, bidian dan Estatutua inundik nora be ezingo dala Euzkadi'ratu. Ofetan, bere esanari aurka egitia bafiz, alpefeko gauzia da. Bere «tematik» nok atara... Atso ori, bere esanian olan gogortzeko, sorgiñen bat ala pamerjalien bate ete da? Edozelan be, giltzulotik igaroten ziran antziñeko sorgiñak lakua ezta beintzat... «Buelto» galantekua da-ta...

### «Astronomo» itzela.

Eguraldijari erdi-erditik igarten dautso «astronomo» efime bat agertu ei-da emen inguruan. Orainguan mutil ofek, il onetan ekatx andi bat izango dala hagafi dau. Solo-barazki ta igalijetan ezeze, gixonetan be, ekatx ofek triskantza galantak egingo dauzala-ta, jente guztija lau ofigen ikaran imini dau. Gotik bera jausiko dan afijak joko daben guztija bertan «siku» geratuko dala-ta.

Bildur izateko da. Guztijori, olan jazoten bada ofatik, mutil ori, ospatsuetan be ospatsua izango da...

### Jazorikua.

Izkirimiri antzeko jazokun-au, lengo urte baten, emeko izpar-idazkijan

Euzkadi izpafingijaa argitaldu zalakuan nago. Ori olan da-be, baña, irakurle, zeuri bafe apur bat eragittafen, eta, orduko gaztiak be zer merezi dabilen zeuri esateko, beraz bafiro argitaltza otu yata.

Negu baten, «Santa Lutzija'ko Manuel» gixon ospatsu-befegafija, emeko elizpian, zortziretako meza aufetik mutil gazte pilua aufian ebala bafiketari aurkitzen zan. Bere esakun bafegafijakaz gure aña bafe egiten eben mutilok.

Alako baten, Manuel'ek, mutilari esan eutsen.

—¿Bakixue gaurko gaztiak zer mereridu dnien?

Orduan mutilak adi-adi jafi yakozan, esango ebana obeto entzuteko; bere aufian danak ezezkan'egozan, kintuek sarkentuen aufian letze...

Eta... Manuel'ek geyagoko barik...

—¡Auxe merezidu yueki esanaz batera ukabilaz arin-arin jo zituzan danak mustufetan; eta bera, pautseko on bana danari emonda gero, tximistia baxen arin elexan sartu zan.

An geratu ziran mutilak elizpian «aieneka»; bitartian, bertan egozan gixonak, ori ikusita, bafiazen-bafiaz okertuta ibili ziran.

«Atakie» uste-uste bakua izan zan lez, mutilak gogoratu orduko pautzetakue aldian eben.

MAÑARIKO

## Eleizkizunetarako Argizagizok kundelak

Eleizkizunetarako daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTA BILI, zigufutasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.

Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezker, argizagi asko aufeztuten da.

### QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA

GASTRIZ.-ARABA (VITORIA)

## Dima.

### Naskaldia.

Efoma'ra joan da Montelano'ko Txebafia'tar Pedroren alaba Katariñe. Ondo ibili.

Eibar'tik etofita emen agurtu doguz url ofetako Gexo-etxean nagosi dan Lekaimepurua ta efi onetako alaba dan Gotzone lekaimelaguna. Ameriketara, Buenos Aires'era laster joateko da Indusi'ko Gofit'ar Justa, mutil gaztea.

### Meza baña.

Igandean esan eban lenengo jaupa Arteun'go Bustintza'tar Toma jaunak. Elizkizun ori zala ta ainbat notin batu zan efi onetan. Zorionak abade bafi ta bere sendiari.

### Efentadoreak.

Egunokaz izan d'ra bafefietatik at egon diran efentadoreak bafiro sartzeko auziak be, Euroen alde emon ei dira epaien batzuk.

### Jesus'en Biotz jala.

Igandez, biar, ospatuko da Jesus'en Biotz jala. Egun ofetan baita ospatuko dabe Gaztediaren zaindari dan Koldobika deuarien eguna Eleiz-Gaztediko mutilak.

### Lamindano'n mendigoizaleak.

Paskoz, zeanuritar mendigoizaleak izan dira Lamindano ta Ufegiko atxean. Mezea ta Andra Mariari Euzkerazko «Salve»a be polito abestu ebezan.

### Arantzazu'ra.

Ainbat dira Arantzazu'ra, Andra Maritar batzafak dirala-ta joateko diranak.

Urkiola'ra be afentzat egitera joateko izan da aste onetan efi au, baña atzeratu egin biar izan da joate ori, ereltzea egin artean-edo.

### Mañari'ko egazki'glia.

Emen azaldu eutsien igaro zan igandean zelakoa zan gizon ofek egin daben tramankulu miragafi ori. Egaz doanean ikustekoa izango dala diñue.

X. K.

## Murelaga (Aulestia).

### Lugiñak.

Aspaldi onetan izan dan betiko eurljagaz, guztiz atzeratuta dagoz euren solo-lanetan lugiñak; ondiño asko dagoz ba arto ta indijabak eraña amafu barik, eta erainda dagoz-nak be ez dagoz atsegin guztijagaz. Inoz baño safijago entzun izan dogu lugiñ edo bafefitafari iruntsek emoten dautsela, aurten ba oin artian beintzat, iruntza edo bustija ugari izan da, baña Goiko Jaun efukitsuak laster egualdijak jaso eta apur bat berotuten ezpa-ditu, lugiñak ezeze, lugiñak ez garienok be igafiko dautsegula uste dot iruntzak eta betiko bustijak bakafik zer emoten daben.

### Josu Bijotza'ren eguna.

Atzo izan zan afen Josu Bijotza'ren eguna, efi onetan bijar igandez ospatuko da, ospe audiaguagaz ospatutafen, eta ofegaz batera bafa ospatuko dabe Luistafak be euren zaindaria dan Koldobika Deunaren eguna; eleizkizun audijak egingo dira eta itzaldijak efiko semia dan Aña Domingo Nekauste'tafak egingo dauz. Alegindu gafezan ba guztijok bijarko eguna ainbat osperik audijenagaz ospatuteko.

ILUNZAR

## Basauri.

### Euzkera-bide.

Emeko Euzko-Gastediñan euzkerazko ikastaro bat emoten izan dau abertzale batek. Lenengotan ikasle p. lo polita etofan, baña aldija igazirik, txikitxu biurtu zan talde ori. Banaka ofetik, bafiz, jafaitzale gustijak emakumiak izan dira.

Lengo astian ikastaro begiko onen amaya ospatu zan. Ikasleme zintzuok euren jakin-txorta erakutsi euskuen, baita euskeraz ikasteko adore bikaña.

Euzko Gastedi'k, ofelako zaletasun benetakoa sarifuteko, euzko-ikastaroa amaitu daben anderaño liranak gozopilez spariztu euzan.

¡Ja abertzaleak oiako egite anai-kofak eutsiten dozubezan eredutzat!

### Euzkeratsaz.

Basauriko auzunetan ezta euzkera lafegi erabilten. ¡Ezta ufik emon bel Badauz, dana dala, auzuna biduru euzkeldunauak beste ganetikuak baño. Gaur eredu ipiñiko dogu Pozokoetxe.

Pozokoetxe efipe txukunean zorijonez euzkera safijago entzuten dogu besteetan baño. Ez uste baña ori alatzez lortu dala an, ez. Auzune begiko ofetan euzkera maite daben iru-lau euzkeltzale daukaguz. Euren lana euzkera-aldez oso txalogañija da. Euzkeltzale banaka ofi ezkefak, umegiñokoak be euzkeraz mintzatu ten dira.

Poztuteko ezta au? Auzuna edo efipe bakolxatan ofelan inardun ba-litekez abertzaliak euzkera mezederako, efaz efaz idoroko leuke euzkera goso ta gaxoak merezi daun toki-egokija.

Aufera Patxi, Lore, Miren... eta abar, lan beresijan. Eta zuk Lore neska liran, ¿noz idatziko dozu? ¡Ezta-kixu zelakua dan emakume batek idatzi dayen nere gurarija...! Itzaropena eztoz galduko beintzat...

### Naskaldija.

Besauri'ko Euzko-Gastediñan bere laster eukiko ei-dogu Kiroltzale-Bazkuna, abertzale kiroltzale gustijak alkartzeko Abefi onez. ¡Aufera gogor!

—U.B.B. onetako burukide zintzoa dan Gandiaga'tar Ernesto'ren emazteak neskatotxu bat eukin dau eta ugutzaukera euzkel ixen begikua ezafiko dautse.

Zorijonak Gandiaga adizkidea eta emakume zifneskoa ixango al da aingerutxua.

—Zaragoza'tik, sendalaritzako azterketak ondo igaro-ta biurtu yaku Abefira Zamakona'tar Pantzeska adizkide ona.

V. Nadol d'etik Goikoetxea'tar Jon adizkidea, latari-ikastaroan uarpen onak irabazirik.

Ondo etofijak eta zorijonak.

GURTUBAIKEPA

## Eleiz - Jantzi ta urreglintza

### A. Rui-Wamba

Eleizak jasateko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238

BILBAO

## Bakio'ko San Pelayo.

### Deun Jonak.

Doniñak ganian doguzala agiri da. Deun Jon subak egiteko asmoz, ota, sasi, eta abar legortuten, izarditen, gaur goizean aurkitu dodaz mutil koskor bi... Ama be, efamu kabelliñak eta abar Deun Jon egunez onetsitako loratxurik ez zirala aurkitzen eta lengo aldian asafe s-mar ebilan.

Neuk be neure arduratzua neukan eta zuzendu naz txauburu jaunagana Deun Jon Gazteluatxeko jaunpan orduak jakin eta «Ekin»en irakurleak jakin erazoteko asmoz.

Abade agurgafiak «Ekin»en iragarteko zirala esan neutsonean, pozik emon be. Ara emen, 7<sup>1</sup>/<sub>2</sub>, 8<sup>1</sup>/<sub>2</sub>, 9<sup>1</sup>/<sub>2</sub> 10 tan izango dira mesak Deun Jon Gazteluatxen entzun nai daben guztientzat.

### Tximist'argia.

Igaro ziran auteskundletan ordago egin eta arerioak autse-egin genduzalako Bakio'ko udalak Sin Pelayotafok saritu nairik edo txim'argia D. Pelayon txadonera ekafitea erabagi dabe.

¡Bai egoan bafizena! kabernikolan gizaldian gengoan bestela-ta.

### Erlotza.

Il onen 11'gn. Jaunaren besoetan Bakio'n il zan gure aizkide andia Erkoreka'tar Koldobika. Irakurle otoiñ bat beronen alde.

UTAR'KA

## Gaminitz.

### Kirolak.

Kirola gogua sendotuteko gauza d. la edonok daki. Beraz, euzkotar gaztiak Abefijaren gogo-bafaban bera ondo eraturteko lafi dabiliz aldi onetan. Ederto deritxagu, ta orixegafik euren barnietan Abefija daben Gaminitz'eko gaztiak egikixun ofi lagunduko dautsoela-ta gagoz. Ofetarako Batzoki'ko agintarijak Batzorderen bat izentau bear leukiela deritxagu. Pelota (abendearen kirola), ostikoketa, ugerketa eta beste kirol batzuk euren jafaitzaliak ixango leukez. ¡Ja, la!

—Zafak eztabe gura atzerantz geratu. Ori zala-ta ila onen 7'gn. «Aufera Beti»ko gaztien aurka jokatu eben. Norbaitek esango dautsuku: «Baña, ¿zeintzuk ziran zafak?» Berrialaxe erantzungo dautsagu: Bilbao, Ruiz anayak, Odrizola, Butron, Saez Murua eta abar, antzifian uriko marguak adore andijaz aldeztu ebezanak. Bai, oneik oindiño bai dabe lengo adoria, ta gazteen aurka inardatu ziran. Gaztiak, baña, beti gazte ta jokaldija irabazi egin eben, baña ez uste gero efaz-efaz irabazi ebela «tanto» baten aldegatik baño.

### Ezplara.

Egun atantxe ostikoketea ikusten gengoan izpar baltza eldu yakun. Goxian, Barzena'tar Gotzon gaztia, emeretzi urteduna, bere afea, Baxili anaya ta adizkide batekin, itxasertza jua zan pertzebe-bila. Eurek artzen inarduban eta bat-batez uin batek atxetik aldendu eban itxas-bafura sarturik. Bere afea ufun eguan eta anayak gora jazoteko alegiñak egin gura-ixan euzan. Itxasua, baña, toki atan (El Carrejo deritxone) asafe egoten da beti. Origafik, Gotzon'en anayakin eguan lagunak ez eutsan Baxili'ri bere anaya ateretako alegiñak egiten itxi gura izan, bera be ifo egingo litzakian-eta. Tamalez, Gotzon gaxua ifo egin zan.

Bere sendiai geure tamal-agufa dagitsugu. Goyan bego.

### Dabiltzanak.

Geure artian ikusi doguz itxas-langile: Bilbao'tar Dabi, Ruiz'tar Josu, Ugartetxe'tar Jon eta abar. Ondo etofijak.

LOLTARPI

## Barinaga.

### Txepetxaren buru austiak.

Itzaso aldetik edo, ostera be axeril zafak agertu ei dira ta txepetxaren bixi leku bafijori ondo aztertu ei dabe. Baita ofso-txakufak be aren antz kiratsua susmau ebenian, arin agertu ei ziran eta egozan bildots banakok azkar iruntzi ei dabez; baña malukitza an oso neste txafa itxi ei dabe. Ia ba, zer egingo yaken, jezer bezl Autu-mautukan ofekin oba ez ibili, ¡kaixio mutil!

### Jayotza.

Lafuskain'tar Domingo eta Araño'tar Luziak alabatxu batekin geitu dabe sendija edo f. m. l. ja. Zorijonak.

### Erijotza.

Gexo luze ondoren, Jainkua'ren besuetan il zan «Korostedi» be setzeko andria ta sendijak artu begie gure sam'n agufa.

### Mitiña.

Uste bako mitiña gure auzo efi polit Etxebafin'ian izan dogu; baña alan da gusti be edozenbat lagun izan dira. Ia ba, v'fengorako obeto gertatuten zarien ofelako abertzale-jeltzale mitiña emoten.

### Urkiolan.

Aurten be emetik, Antonio Deunari efegu egitera, asko izan dira ta afazkero eguraldija obaruntz duela esan lei. Ia ba, ssko es'atu egingo eben eta biar bada, gogoz entzuna ixango da.

TXEPETX-ORDE

## Gerena.

### Izpañak.

Gure asteoroko «Ekin»ek afera izan dabela esan lei ta onek nakar ba ostera be azkar zerbait idaztera. Ea ba, Geria ta ingu.uko irakurle maite guztioz iraupenez aufera be olantz yafaltu, etxatzue damutuko ta. Igaro dan asteartean edo martizenean bertoko Eliz jayak izan dira ta aundiro ospatuak izan dira. Asi goizeko meza, Jauna arte, meza nausi edefa, itzaldi mamintzuagaz eta abar. Elizatzua txikia da baña bete beterik, lora politez apainduta, garbi eguan. Geriñak olantze daki erantzuten ofelako gauzetan. Tira ba, urte sskoan olantze.

### Naskaldia.

Gure lagun zar Gerenabafena'tar Pantzeska jeltzale zintzua Bilbao'tik etofita egun batzuk igaroteko asmoz, emen dogu. Ea ba, Pantzeska aita zafaren eta efebearen ondoan egunok ondo igaro.

### Durango-babea.

Datofen iganderako amaika olori ta olaskori burua kenduko jakez durango-baba ta idar ondo ko'pestuak

izan deitezan. Malabitafak adafa jo-teagaitik edo Geriñari esan oi deutse: Adrian deuna goziak baba lekea auan dabela solo bafenen baten, bilatu ebela ta. Baña, Malabitafak ezer bear bada be beti Geriñara datoz, ¿zer dala ta? jez bertan asko baleuke!

IKASLE

## Lekeitio.

### Azkue jayak.

Datofen astea, geyena dogu efiko seme bikain Azkue aita-semiak goraltzeko. Eguenean izango da Euskaltzaindia'ren batzaf; larunbat edo sapatuz, Labayen, Aitzol, Lauaxeta ta Altzo Abak itzaldiak egingo ditue, baita umien azterketak be izango dira euzkeraz; igandez, golzoko tanbolin ta eresbatz, Mesa Nagosi, bertolari, olerkari-sariketa, Azkue aitaren jayotetxean afibizipintea, jolas-aldi, Oyartzun'go antzerkiariak... eta asko geyaga. Poztasun andia dago, ta ezta laguntza beafik izango.

### Arantzua.

Kafamafo, kabra, sardiña ta onetarikotxuak: ezerbez.

### Itxastarak.

Orairdik kayan dagoz loturik ontzi eder asko, euren arteko auzia erabagi arte ontzi-jaube ta itxas-mutilen artean.

### Ikastak.

Ikastaroko artezketak ederto egin da Gazteiz'tik etofi dira bertoko Merzedetafen ikasak. Zorionak.

—Baita Madrid, Bilbao ta beste urietan dabiltzanak be; eta euron artean Beriz poralaren anaya Iruña'tik etofi yaku subdiakono ingunda: artu ba zorion agufa, anai-adiskideak.

### Udatañak.

Oneik be agertuaz. Ondo etofiak guztioz.

Z.

## GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak

### Zubiri'tar Bingen

Arteñale, 50

BILBAO

## Elorio.

### Zer igaro zan?

Aste guztijan neure burubari itaun auxe egiten egon naz. Zer jaso zaa igaro dan astian nik beti lez, gure efiko idazkija baldi, ta bera ez argitaltzeko? Eztakit. (1) Baña irakurle, zure asafia spaltzeko asmuaz, emen jarten dautzut oso-osorik argitaldu barik gelditu zan idazkija berbera. Ba dua.

### Erijotzak.

Luzaruan gexorik egon ondoren il zan il onen 3'gnian. Itzegi'tar Begoñe. (G. B.)

Il onen 7'gnian. Juun - Goikua'ri bere gogua emon eutsan bafa be, Lafañaga'tur J. M'renak. (G. B.)

Ip'ifangi onen bidez, tamal agufik bijotzetikubena gazte bi onen sendijeri.

### Juan etofijak.

Ilargi ezitfuba igaro ondoren, emen agurtu doguz, Iraragofi'tar Josu, emengo osagle zur ta jakintfuba ta bere emazte Bengoetxea'tar M. Gotzone.

—Ikastetxetik etofi, ta emen agurtu doguz bafa be Fzldain'dar Inaki, Ugarte'tar Alberta ta bere anai Gerarta, euren azterketak ondo baño obeto egin ondoren. Asko poztu gatu. Zorijonak.

### Eguraldija.

Neguban Udabafiko eguraldija egin eban afen, orain negukuba egi-